



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaiko neguko errepide planak edurra kentzeko 74 makina eta 356 pertsona jarriko ditu martxan**

Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatu jauna Batzar Nagusietara joan da gaur, PP-k eskatuta, Bizkaiko errepideetako Bide Segurtasun Plana zehazteko. Joan dan domekan, zemendiaren lean, indarrean sartu zan eta apirilaren 30era arte aktibo jarraituko dauen zerbitzu bereziak, behar gehien dagoanean edurra kentzeko 74 makina –igaz baino hiru gehiago–, 9.290 gatz tona eta 200 metro kubiko gatzur erabili ahal izango ditu, eta gidarien, laguntzaileen, zaindarien eta beharginen artean, 356 pertsona arituko dira, Aldundiaren beharginen eta errepideetako kontserbazinoan aritzen diran enpresetako beharginen artean.

Bizkaiko Batzarretako Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko batzordean Pradalesek Lurraldeko errepideak bananduta dagozan hiru lehentasun mailak azaldu ditu. Edurra edo izotza dirala eta arazoak sortzen dituan egoera meteorologikoa gertatzen bada, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzagaz eta udalakaz koordinatutako plan horretan oinarrituta, aitatutako plana aktibauko dau, lehenengo unean sare nagusiko 9 errepide garbitzeko, A-8a, AP-8a (Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra eta Ermuraino doan Bizkaiko zatia), N-637 eta N-240 errepide nazionalak, Santo Domingoko gaina eta aireporturako, “superporturako” eta ospitaleetarako sarbideak.

Bigarren lehentasun mailan Lurraldeko beste 19 errepide dagoz, eta horreen artean Avanzada, Enekuriko, Urkiolako, Artebakarrako, Autzaganeko, Kanpazarko edo Trabakuako gainak, eta Gernika-Bermeo edo Bilbo-Balmaseda errepideak, beste batzuen artean. Eta beste 18 errepidetan lehenengo bi taldeetako mobikortasuna bermatuta dagoanean jardungo da. Eta horreen guztien ostean beste errepide batzuk egongo litzatekez, Ballontiko ardatza, Unbeke errepidea, Unibersidaderako sarbidea edo Sollubetik doan Mungia-Bermeo errepidea, beste batzuen artean. Igazko neguan “6.800 gatz tona eta 243 metro kubiko gatzur erabili”, eta “3.149.000 euro” inbertidu ziran.

Aurtengo neguari begira, Foru Aldundiak “hobakuntza” batzuk jarriko ditu martxan, metaketa instalazioak itxiko ditu, lapurretarik egon ez daiten, eta igaz Bizkaiko errepideak garbitu ebezan 71 makinei gehituko jakezan edurra kentzeko beste hiru makina erosi ditu.

Bukatzeko, Aldundiak hainbat aholku emon deutsez herritarrei, hotza, edurra eta izotza dagoanerako. Holan, gomendagarria da errepideen egoereari buruzko informazioa jasotea urten aurretik, egoera musturrekoa danean ez bidaiatzea eta garraio publikoa erabiltea. Norberaren ibilgailuan bidaiatzea derrigorrezkoa bada, Pradalesek azpimarratu dau beharrezkoa dala ibilgailuaren egoerea aztertzea (balaztak, pneumatikoak...), astiro ibiltzea, beste ibilgailu batzuekatz gorde beharreko segurtasun tarte zaintzea eta ibilgailuan kateak eroatea, segurtasuneko agenteek agintzen dabenean jarri ahal izateko.

EZ DA ONARTU BIZIKLETEN FORU ALOKAIRUA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Saio berean, PP taldeak, Bizkaiko Batzar Nagusiek “6 hilebeteko epean”, “lurraldearteko alokairuzko bizikleta-zerbitzu propioa ezarteari edo udalerrien artean bizikletak erabilteko txartela sortzeari” buruzko azterlana aurkezteko Foru Aldundiari eskaerea egin deioen Arauz Besteko Proposamena defendidu dau. Ekimena ez da onartu, EAJ-PNV, PSE-EE eta Podemos Bizkaia taldeen kontrako 9 botoakaz eta PP eta EH Bilduren aldeko 4akaz.

Jesús Isasi popularrak adierazo dauenez, bere proposamena bat dator txirrindularitza planaren helburuakaz eta sailaren 2016ko aurrekontu partidaren memoriagaz. Esan dauenez, memoria horretan bizikletea ibilgailu pribaduaren “alternatiba” moduan sartzen da, Bilbo Metropolitanarean, batez be.

Popularrak ekimenak EH Bilduren babesa baino ez dau jaso. Talde horren eretziz, beharrezkoa da, baita be, bizikletak garraiobide moduan beteten dauen egoerearen “argazki orokorra” izatea. Dana dala, Zigor Isuskizak esan dau azterlana Aldundiko teknikariek eurek egin daikiela, gastu gehiagotan ez sartzeko.

Kostuaren gaia izan da, hain zuzen be, Podemos Bizkaia ekimenaren alde agertzeko erabili dauen errazoa. Talde horren eretziz, azterlana “ez da garrantzitsua”, euren ustez, Aldundiak iragarri dituan eskualdeetako bulegoetan martxan jarri daitekean bizikleten alokairurako foru sistema martxan jarteko “behar besteko eskaerea” dagoalako. “Borondate politiko kontua da”, esan dau Neskutz Rodríguezek.

Joaquín Colmenerok (PSE-EE) be kostua erabili dau PP-ren proposamenari ezetz esateko, baina Podemosek ez bezela, uste dau “ez dagoala behar besteko eskaerarik”. Euzko Abertzaleak taldea be bat etorri da eretxi horregaz, eta eztabaidan datu batzuk aurkeztu ditu.

EAJ-PNV-ko Irene Edesak Bizkaian kirol txirrindularitzarako dagoan zaletasun handia azpimarratu dau “hamar familiatetik zazpi bizikleta daukiela etxean”, baina datu hori ez dala islatzen bizikleta garraiobide moduan erabilteko orduan. “%88k” kirol helburuetarako erabilten dabe, eta “%4,3k” baino ez dabe erabilten eguneroko joan-etorrietarako. Ganera, joan-etorri horreek “laburrak” izaten dira, eta hori ez dator bat udalerrien arteko zerbitzua martxan jarteagaz. “Garrantzitsuena eskaerea da, eta ez dogu bideragarri ikusten”, esan dau.

Batzordekide jeltzaleak esan dau bizikleteak “lehiakortasuna” galtzen dauela “7,5 kilometrotik gorako” distantziak diranean. EH Bilduk kritikau egin dau puntu hori. Koalitzino abertzalearen eretziz gai hori erabilgarritasun publikoko gai moduan landu behar da. EAJ-PNV-ren eretziz bizikleten foru alokairuaren kontra doan beste puntu bat, orain arte indarrean jarri diran sistemen “bateraezintasuna” da. Erandioko eta Barakaldoko sistema “eskukoa, manuala” dan bitartean, Leioan, Getxon edo Bilbon bilketa “automatikoaren” aldeko apustua egin dabe, esan dau Edesak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **El plan invernal de carreteras de Bizkaia desplegará 74 quitanieves y 356 efectivos**

Bilbao, a 3 de noviembre de 2015.

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha acudido hoy a las Juntas Generales para detallar, a petición del PP, el Plan de Seguridad Vial Invernal de carreteras de Bizkaia. El dispositivo especial, que entró en funcionamiento el pasado domingo 1 de noviembre, y estará activo hasta el 30 de abril, podrá desplegar en su máximo expresión un total de 74 quitanieves -tres más que el año pasado-, 9.290 toneladas de sal, 200 metros cúbicos de salmuera y 356 efectivos entre chóferes, acompañantes, vigilantes y operarios, tanto de recursos propios forales como de las empresas dedicadas a la conservación de las carreteras.

Pradales ha detallado en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial del parlamento vizcaíno los tres niveles de prioridad en los que se dividen las carreteras del Territorio. De darse alguna situación meteorológica adversa por nieve o hielo, la Diputación, en virtud de este plan coordinado con Gobierno vasco y ayuntamientos, activará dicho plan, en un primer momento, para limpiar 9 viales de la red principal como son la A8, la AP-8 (Supersur y tramo vizcaíno hasta Ermua), la N-637, la N-240, el alto de Santo Domingo, y los accesos al aeropuerto, superpuerto y centros hospitalarios.

En un segundo nivel de prioridad, se encuentran otras 19 carreteras del Territorio, entre las que se encuentran La Avanzada, los altos de Enekuri, Urkiola, Artebakarra, Autzagane, Kanpazar o Trabakua, la Gernika-Bermeo, o la Bilbao-Balmaseda, entre otros. Y en otros 18 viales se actuaría una vez de que esté garantizada la movilidad en los dos primeros. A la cola quedarían entonces carreteras como el eje del Ballonti, la carretera de Unbe, el acceso a la Universidad, o la Mungia-Bermeo por Sollube, entre otras muchas.

En su comparecencia, Pradales ha hecho un balance del plan invernal del año pasado que se activó en "32 ocasiones por nieve y en 38 por hielo", con especial incidencia en el mes de febrero en donde "se dispararon las horas trabajadas", ha apuntado. En el invierno pasado, se llegaron a utilizar "6.800 toneladas de sal, 243 metros cúbicos de salmuera" y se invirtieron "3.149.000 euros".

Para este año, la Diputación pondrá en marcha algunas "mejoras" como el cerramiento en las instalaciones de acopio para que no se produzcan episodios de robos, o la adquisición de tres quitanieves más que se suman a los 71 que limpiaban las carreteras vizcaínas el año pasado.

Por último, el diputado ha lanzado una serie de recomendaciones a la ciudadanía para cuando se produzcan episodios de frío, nieve y hielo. Así, ha aconsejado informarse previamente del estado de las carreteras, desistir de viajar en condiciones extremas o utilizar el transporte público. Si es necesario viajar en vehículo, Pradales ha insistido en que se revise el estado del vehículo (frenos, neumáticos...), se circule despacio, se mantenga una distancia de seguridad con los otros vehículos y se lleven cadenas en el coche para usarlas cuando lo indiquen los agentes de seguridad.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## RECHAZO AL ALQUILER FORAL DE BICICLETAS

En la misma sesión, el PP ha defendido una Proposición No de Norma para que las Juntas Generales de Bizkaia instaran a la Diputación Foral a presentar “en 6 meses” un estudio relativo a la posibilidad de establecer “un servicio propio de alquiler de bicis interterritorial o un camet para compartir bicis entre diferentes municipios”. La iniciativa ha sido desechada con 9 votos en contra de PNV, PSE-EE y Podemos Bizkaia, frente a 4 votos a favor de PP y EH Bildu.

El popular Jesús Isasi ha señalado que su propuesta encaja con los objetivos del plan ciclable y con la memoria presupuestaria del departamento del año 2016, en donde se incluye, según él, la bicicleta como “alternativa” al uso del vehículo privado, especialmente en el Bilbao Metropolitano.

La iniciativa popular ha contado con el único apoyo de EH Bildu, formación que cree necesaria también tener una “fotografía general” de la situación de la bicicleta como medio de transporte, aunque Zigor Isuskiza ha indicado que el estudio lo podrían realizar los propios técnicos forales para evitar gastos.

Precisamente, el tema del coste ha sido el argumento principal utilizado por Podemos Bizkaia para negarse a apoyar la iniciativa. Para este grupo el estudio es “irrelevante” ya que creen que hay “demanda suficiente” para poner en marcha un sistema foral de alquiler de bicicletas que podría encajarse en las anunciadas oficinas comarcales de la Diputación. “Es cuestión de voluntad política”, ha dicho Neskutz Rodríguez.

Joaquín Colmenero (PSE-EE) ha usado también el coste como argumento para rechazar la propuesta del PP, pero, al contrario de Podemos, piensa que “no existe demanda suficiente”, algo en lo que ha coincidido con el grupo Nacionalistas Vascos que ha expuesto en el debate algunos datos.

Irene Edesa, del PNV, ha destacado la gran afición al ciclismo deportivo en Bizkaia “siete de cada diez familias tienen una bici en su casa”, dato que no se ve reflejado en cambio en el uso del vehículo de pedales como medio de transporte. El “88%” lo usan para fines deportivos, frente a un “4,3%” para desplazamientos cotidianos que, además, suelen resultar “cortos”, lo que no casa con la implantación de un servicio entre municipios. “Lo importante es la demanda y no lo vemos factible”, ha dicho.

La apoderada jeltzale ha señalado que la bicicleta pierde “competitividad” para distancias “superiores a los 7,5 kilómetros”, cuestión criticada por EH Bildu que cree que se debe contemplar la cuestión como de utilidad pública. Otro handicap que juega en contra del alquiler foral de bicicletas según el PNV es la “incompatibilidad” de los sistemas implantados hasta ahora. Mientras que en Erandio y Barakaldo el sistema es “manual”, en Leioa, Getxo o Bilbao, han apostado por la recogida “automática”, ha cuestionado Edesa.